



AUZO BILERAK 2024

AUZO: Iturriotz

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/10/01	18:00	20:25

Udal ordezkariak:	Joana Mendiburu, Ekain Susperregi eta Ibintza Iragorri			
Herritarrak: 15	Euskaraz:16		Elebitan:	
	Emakumezkoak:8		Gizonezkoak:8	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 11	51-65 urte:2	>66 urte:2

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
Legealdi planaren jarraipena	<p>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</p> <p>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</p> <p>2024:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.- Udaleko euskara plan berria idatzi da.- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).- Aurten lehen aldiz mugaldeko udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.



	<ul style="list-style-type: none">- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri. <p>2025:</p> <ul style="list-style-type: none">- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.- Natur-guneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.- Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...
Ordenantza fiskala eta aurrekontuak	<p>ORDENANTZA FISKALAK</p> <ul style="list-style-type: none">- Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berriitu dira:.

- Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu.
- %2 igoera tasetan eta KPI-%3,4.
- Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko.
- Kohesio soziala. 3975 bizitza unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin <13.500€, 50 familia bi adin txikiko <13.500-26.000€.
- <13.500€ errenta duten bizikidetzak unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira.
- Trakzio mekanikoa familia ugarietarako errentaren arabera.
- Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. >65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko.
- Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru.
- Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, natur-guneak, itzalak...
- Hobariak: Energia aprobetxamendu sistemak (eguzki panelak) jarritz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.

	<ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna. - Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obretan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isuriaren arabera. - Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren arabera tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinaren kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinaren tasa garestitu egingo da. Ondorengoa izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herriei konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean. - Etxebizitzak: ginkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat. <p>UDALEKO AURREKONTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da. - Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak - Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealerako %10,2.
Auzoa	-Eskaerak

- **Tronpeo:** argiztapena jarri, zuhatzek hartzen duten espazioarekin zer egin erabaki, Elika parean pasabidea lekuz mugitu. Mugikortasun planean jaso.
- **Skate parkean itzalpean eserlekuak.** Egina, baita argiteria ere.
- **Ozentzio 28 parkeko argiteria zati bat apaingarri modura dago.** Energia planean aztertuko da
- **Ibarreko gasolindegiko irteera.** Udaltzainek ez dute interbentziorik aurreikusten.
- **Frontoiak frontisean irekiguneak estali.** Egina
- **Kotxe asko gaizki aparkatzen dira.**

-Egiteko

- **Garañoko erreka bidean bi banku zeuden, berriak jarri beharra**
- **Saroberrekan bide zati bat hondaturik dago.**
- **Pottolo denda aurreko zebra bideak ez du maldatxorik**
- **Auzoko festen ondorengo garbitasun eza**
- **Auzo lokalean biniloak pareretan eta zokalo berriak.**

-Egindakoak

- Frontoiaren mantenu lanak
- Txalaka herribidea konpondu da.
- Skate parkean argiak eta bankuak jarri dira

-Ibarren: panpanoak (zuhaitzak) okertzen ari dira etxe aldera, teilatura eta arriskutsu dago. Erreka bazterrekoak. Gasolindegi eta zubi artean. Semaforoa bera ere ez da ongi ikusten.

-Ibarreko pabelloi ingurua larrak hartua.

-Bizikleta aparkalekuak gehituko dituzuela esan duzue. Nolakoak izango dira; estaliak... segurtasuna ere kontuan hartuko da ezta? Bizikleta elektrikoek kostu/balio handia dute eta toki segurua izatea inportantea da.

Baloratzen ari gara nola egin. Aukera ezberdinak daude; MUGI txartela erabiltzea, herri mailako aplikazio batekin, txartel bat jarritz, kode bat... Guk

MUGIREN aldeko apustua egiten dugu. Baloratu eta erabakia hartu beharra dago.

-Pentsatu da Donostiara autobus zuzena jartzea?

Hori foru aldundiaren kompetentzia da. Jarriko zuela iragarri zuen baina oraindik ez du egin. Ea zer gertatzen den. Baina berez onartua dago; bai zuzeneko autobusa jartzea eta baita maiztasunaren igoera ere (15 minuturoko maiztasunean).

-Frontoi, taberna parean, beheko sorora pasatzeko ez dago oinezkoentzat pasabiderik eta arriskutsu dago.

-Begiratuko dugu, aztertuko dugu.

-Bengoetxea plazan bankurik jartzerik bai? Adineko emakumeak elkartzen dira bertan eta ez dago guztientzat tokirik. Banku gehiago behar dira.

-Taberna ondotik elkartera jaisteko ranpa oso irristakor dago eta jarri berri den barandillak ere ez du funtzioa betetzen.

-Kotxeak oso azkar ibiltzen dira Alzibar aldetik eta Ugaldetxo aldetik. Zer egin daiteke?

Ez du soluzio erraza. Beste bide batzuetan neurriak hartu dira baina ez dira errespetatu: Iparralde etorbidean, Ergoien bidean gertatutakoak kontatu dira. Rotonden funtzioa berez, abiadura jaistea da...

-Beheko sorotik jaitsi eta zebra bidera oso tarte gutxi dago. Ezin da balla bat jarri?

-Bide gorritik zubi berritik etortzeko loturarik pentsatu da?

Buruan dabilkiguna, da espaloi moduko bat egitea autobus geltoki aldera. Sagasti artetik. Aukera bat da atzeko bide hori auzora lotzeko.

-Beheko soroan dagoen iturria ez dago egoera onean. Askotan ataskatuta dago.

-Bi haur parke daude: Beheko soroan dagoena nahiko zaharkituta dago eta gainera nahiko toki hotza da. Bengoetxea plazakoa ere ez da oso egokia. Toki estalki bat ongi legoke hurrekin egoteko. Agian Alzibarren egingo dena eredugarri izan liteke...

Eremu estaliarena Iturriotzen nahiko zail dago. Beheko sorokoa ez da estaliko, agian parkea bera berritu daiteke, baina estali ez.

-Bengoetxea plaza azpian parkinik ez dago.

-Horrela bada agian zerbait pentsa liteke.



Karritoekin kosta egiten da toki batzuetatik pasatzea. Kotxeak aparkatuta daudelako. Berdin gurpildun aulkiarekin pasatzeko.

Udaltzainak pasa izan dira eta deus egin ez.

Ikusi izan ditugu gaizki aparkatuak eta ondoan tokiak libre. Gaizki aparkatzeko joera handia dago.

Neurriak hartu beharko lirateke. Agian hasieratik isuna ez, baina abisuak...

-Argiñene kalean bizi garenak, Frontoi parera iristen garenean askotan ikusgarritasun arazorekin egiten dugu topo, inguruan kotxeak aparkatuak daudelako. Piboteak, marra horia jarri liteke?

-Txinauzirako bidegurutzean askotan kotxeak aparkatuta egoten dira eta bertakoek nahiko lan izaten dute kotxearekin pasatzeko. Suhiltzaileek, anbulantziek... ezingo lukete pasa.

-Garañoko iturri pareko lurra oso irristakorra dago. Eta argiztapena ere baloratzea beharko liteke. Adineko emakume asko ibiltzen da bertan eta arriskutsu dago.

-Garañoko iturritik gora, bidegurutzean, ispilu bat jartzea akaso? Oso irristakorra dago, oso toki ospela da eta kotxeak frenatzeko nahiko lan izaten du. Adineko jende asko ibiltzen da eta arriskutsu dago.

-Korreosen funtzionamendua oso txarra da auzoan. Azken hiru hilabetetan ez da ezer jasotzen ari. Zerbait egiterik badago?

Bertara joatea duzue hoberena. Guk ez dugu egitekorik, eta guri ere gertatu zaigu.

-Elizalderako galderak: mugikortasunari dagokionez, Elorsoro ondoan bizikleta karrilla egin zen. Elorsoro parean espalaira igotzeko koxka dago, desatsegina izan liteke eta helduentzat arriskutsua ere bai.

-Hondakinen ikuspuntutik: Ibergain parkin gainean dauden ontzia gainezka egoten da.

-Ez du gainezka egiten ontziak kaleko kontsumoagatik bakarrik. Bada bizilagunik etxeko hondakinak horra eramaten duenik ere. Baina bai, kontuan hartzen dugun puntu beltz bat da. Mahai gainean dago.

-Eskola eremuko hondakin ontziak txiki geratzen dira. Gainezka egiten dute.

-Belutenetik zatozela, Elizaldeko autobusa bere aparkalekuan geratzen da, baina atzekoa erdian geratzen da eta ataskoa. Begiratzeko kontua da.



-Autokarabanekin zer? Bi aparkaleku okupatzen dituzte, espaloia, zebraidea ...
Hori egin ahal da?

Ez ditu bi IBI pagatzen.

Kotxea aparkatzea ez da eskubidea, zerbitzu bat da. Plaza bat okupatzeko eskubidea badu kotxe orok, baina udalak ez du horren erantzukizunik.

Ados gaude, aparkatzeko zerbitzu bat eman behar zaiola. Baina erantzukizuna ez du.

Epe muga ere badago.

Zer egin daiteke bi plaza aparkatzen baditu autokarabana batek?

Egoera guztiak ez dira berdinak, eta etxe bakoitzeko egoera pertsonala da. Akaso furgoneta/autokarabana duen familia batek hori bakarra du eta hori da bere mugitzeko garraioa, eta beste etxe batean 4 kotxe daude akaso.

Oreka bat bilatu behar da guztien artean. Araua bera da denentzat. Elkarbizitza.

-Edukiontziekin jarraituz: labaderoan onduan jarri da beira jasotzeko edukiontzi berdea. Bereziki bizikletekin baldin bazoaz ikusgarritasun oso txarra geratzen da.

Agian, iragarki taularen atzean jartzea komeniko litzake. Labaderoaren beste aldean, iragarki taularen atzean.

-Elizalde auzoan: Xanistebanetan garbiketa kontuak: kontzejupe plazako garajeen sarrera horretan ez da jaboiarekin pasa lurra.

-Ozentzio 26-28 etxean, sarreran garbiketa sakonagoa behar da lur horretan. "Kartxerrarekin" edo... Irristakorra delako agian.

-Kiroldegian inguruan: erabiltzaileek egiten duten eskaerekin zer gertatzen da? Erantzun bat eskatzen da. 7 kiloko pisuak falta dira eta hauen eskaera egin da askotan eta ez da erantzunik jasotzen.

-Kiroldegia: mantenu lanengatik 2 astez itxi da eta gero beste bi astez ere itxita egon zen!

-Kiroldegia: Etengabe kudeaketaren inguruko kexak sumatzen ari naiz.

Nahiko buruhausteko kontua da kiroldegia eta gutako bat gainean dago.

Enpresa bat da kudeatzen duena, baina udala gainean dago. Azpikontratutzen diren enpresa guztiekin gainean egon behar da, ez da zerbitzu erraza.

Aldi berean ez da planteatzen udalera ekartzea.



	<p>-Ekipamendurako materiala erostea nori dagokio?</p> <p>-Esango nuke, baina ez nago seguru, kontratu mota aldatu den horretan , esango nuke udalarena dela horko materiala erostearena. Batzuetan udalean ere kontsideratu liteke eskaera guztiei ez balekoa ematea. Elorsoro ez da zerbitzu merkea.</p> <p>-Euskara eta kulturartekotasuna: kanpotik etorritakoez hitz egin da, baina nik hemen bizi direkinekin ere armonia hori bilatuko nuke. Gai honekin lotuta, MUTTU zerbitzuan, wasap taldeen bidez funtzionatzen da. Wasapa ez da batere tresna egokia kulturartekotasunaren bidean ere. MUTTU udalaren zerbitzu bat izanik baloratu beharko litzateke beste kanal bat erabiltzea.</p> <p>-Datuak jasotzeko banatzen den taula ez da legala. Ezin dira datu pertsonalak horrela jaso. Lege hauste bat da. Pertsona bakoitzak bere papera beharko luke.</p> <p>-Bizikletak aparkatzeko guneei dagokionean: txartelak baino irakurgailuak behar dira hautatu behar dena. Irakurgailuak objektu teknologikoak dira eta horretan dabilen edozein enpresek egin dezake hori. Datuak beharko lirateke hori. Akaso posiblea izango litzake MUGI txartelarekin datu base hori osatzea.</p>
Itxiera	<p>Burujabetzetako parte-hartze prozesuaren eta burujabetza jardunaldien berri eman da. Batzarra baloratzeko orria banatu da. Asistentzia orrian jasotako posta elektronikoetara gaurko akta bidaliko dela gogorarazi da.</p>

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
bilera ongi gidatu da	9
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9
Auzotar kopurua	5
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8
Saioa probetxugarria izan al da?	9
Egunaren egokitasuna	8
Orduaren egokitasuna	8



Lekuaren egokitasuna	8
----------------------	---